



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 2a

Vitoria-Gasteiz, 2 de junio de 2026

Kultura eta Hizkuntza Politika

Eusko Jaurlaritzak 200.000 euro emango ditu Euskal Kultura Ondarearen babesari buruzko ikerketa-lanetarako dirulaguntzetan

Gobernu Kontseiluak, 2026 eta 2027 urteetan euskal kultura-ondarea osatzen duten elementuei (adierazpen immaterialak ezik) buruzko ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzen deialdia onartu du gaur. Hala, Eusko Jaurlaritzak **200.000 euro** bideratuko ditu deialdi honetara. Proiektuak **%100ean lagundu** ahal izango dira diruz, 15.000 eurora arte.

Diruz lagundu daitezkeen lanek ondare materialaren ondasun higiezinetan zein higigarrietan zentratu ahal izango dira, eta EAEko kultura-ondarearen ikuspegitik aztertutako ondasunen ezaugarriei edo garrantziari buruzko ezagutza berria sortu beharko dute, haien balorazio kritikoa egiten eta haien babesa hobetzen laguntzeko.

Gainera, dirulaguntza horien bidez, eskabideak baloratzeko irizpideen bitartez, euskararen erabilera, kultura-ondarearen ikerketa-proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea eta emakumeek proiektuen arduradun gisa parte hartzea sustatu nahi da.

Diruz lagunduko diren proiektuak 2026eko ekitaldian hasi beharko dira, eta 2027ko urriaren 31a baino lehen amaitu.

2026-2027ko deialdirako **eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa** izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ekainaren erdialdera aurreikusita dago argitara ematea.

2025eko deialdian 13 ikerketa-proiektu lagundu ziren diruz, historiaurretik XX. mendera bitarteko aukera kronologiko zabala hartzen dutenak, eta euskal kultura-ondarearen, ondare higigarriaren eta ondare higiezinaren askotariko gaiak jorratzen dituztenak.

Ekonomia, Lana eta Enplegua

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak Urteko Estatistika Programa onartu du, Euskadiko datu ofizialen ekoizpena indartzeko

- **Aurtengo dekretuak ehun estatistika eragiketa baino gehiago arautuko ditu, eta balio handiko datuei buruzko Europako eskakizun berriak jasoko ditu**

Gobernu Kontseiluak, Mikel Torres Lehendakariordearen eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren proposamenez, Urteko Estatistika Programa onartu du astearte honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan 2026an egingo diren estatistika eragiketa ofizial guztiak definitzen eta antolatzen dituen tresna.

Estatistika programa hori 2023-2026 Euskal Estatistika Planaren baitan dago, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legea betetzen du. Lege horrek urtero plan horiek dekretu bidez onartzera behartzen du Eusko Jaurlaritza. Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak egin du aurtengo programa, Euskal Estatistika Kontseiluaren babesarekin eta Euskal Estatistika Batzordearen nahitazeko txostenarekin.

Urteko Estatistika Programak estatistika eragiketen zerrenda zabala biltzen du, eta askotariko eremuak hartzen ditu: demografia, osasuna, hezkuntza, ekonomia, lan merkatua, ingurumena, etxebizitza, mugikortasuna, kultura eta euskara, besteak beste. Barne hartutako inkesta eta estatistiken artean daude, adibidez, Osasun Inkesta, Bizi Baldintzen Inkesta, Biztanleriaren Estatistika Erregistroa, Mugikortasun Inkesta edo Euskararen Adierazle Sistema.

Dekretuak, gainera, hasiera batean 2023-2026 Euskal Estatistika Planean aurreikusi gabeko bi estatistika eragiketa berri jasotzen ditu: bata, adinekoentzako egoitza zentroetako kalitate adierazleei buruzkoa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailak proposatuta, eta, bestea, delitu estatistikei buruzkoa, Segurtasun Sailaren ekimenez.

Urteko Estatistika Programak datu irekiei buruzko Europako Zuzentarautik eta Europako Batzordearen 2023/138 Betearazpen Arautegitik eratorritako betebeharrak ere jasotzen ditu. Bertan, datu horiek berrerabiltzeko jendearen eskura jarri behar diren balio handiko datu estatistikoaren multzoen zerrenda bat ezartzen da. Araudi hori aplikatuz, Eustatek Euskadiri dagozkion balio handiko datu estatistikoak zabalduko ditu programazio interfazeen bidez (API) eta, ahal denean, deskarga masiboaren bidez, lurralde historikorainoko lurralde desagregazioarekin.

Programan sartutako estatistikak nahitaez bete beharrekoak dira eragiketa bakoitzean identifikatutako informatzaileentzat. Emaizak Eustaten webguneko zerbitzarian eta sail bakoitzeko atarietan argitaratuko dira. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretua, eta 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Ogasuna eta Finantzak

Ongizateak, eraldaketak eta egonkortasunak finkatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko 2027rako aurrekontuen norabidea

- Eusko Jaurlaritzak datorren urteko kontu publikoetarako jarraibide ekonomikoak onartu ditu. Aurreikusten da 2027an barne-produktu gordinak % 1,6ko igoera izatea, enplegua sortzea eta zerbitzu publikoen, jasangarritasunaren eta lehiakortasunaren aldeko apustua indartzea

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 2027rako Aurrekontu Orokorrak egiteko oinarri izango diren jarraibide ekonomikoak. Erabaki horrekin, hasiera formala ematen zaio aurrekontu-prozesuari, eta urte amaieran amaituko da Eusko Legebiltzarrean Aurrekontuen Legea onartzearekin.

Eusko Jaurlaritzaren helburu nagusia da ongizate-estatua sendotuko duten, hazkunde ekonomikoa bultzatuko duten eta finantza-egonkortasunari eutsiko dioten kontu publikoak diseinatzea, ziurgabetasun geopolitikoa eta ekonomikoa nagusi den nazioarteko testuinguruan.

Jarraibideek jasotzen dutenez, aurrekontua da politika ekonomikoaren funtsezko tresna. Izatez, aurrekontua bat dator legealdiko helburu estrategikoekin, eta bideratzen da herritarren berehalako premiei erantzutera zein Euskadiren etorkizuneko garapenaren oinarriak finkatzera.

2027rako egoera makroekonomikoa egungo ingurune global konplexuak baldintzatzen du. Ekialde Hurbileko gatazkak nabarmen areagotu du ziurgabetasuna, eta horrek eragina izan du energia-prezioetan eta nazioarteko merkataritzan.

Testuinguru horretan, jarduera ekonomikoaren dezelerazio orokorra aurreikusten da. Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak % 1,9eko igoera izango du 2026an eta % 1,6koa 2027an, Europako ekonomia nagusien moderazioaren ildo beretik.

Enpleguak aurrera egiten jarraituko du, erritmo txikiagoan bada ere, eta 2026an % 1,0 eta 2027an % 0,7, gutxi gorabehera, gora egitea aurreikusten da, hau da, 17.000 lanpostu berri. Era berean, 2027an langabezia-tasa maila txikitzen mantenduko da, % 6,2 inguruan.

Jarraibideek jasotzen dutenez, agertoki horretan, zuhurtzia eta anbizioa uztartu beharko dira aurrekontu-politikan, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren erresilientzia bermatze aldera eta herritarrak kanpoko arriskuen aurrean babeste aldera.

Aurrekontua bideratzeko bost ardatz estrategiko

- Jarraibideek ezartzen dutenez, 2027ko aurrekontuak bat etorri behar du XIII. legealdiko helburu nagusiekin, eta bost ardatz estrategikoren inguruan egituratuko da:
 - Pertsonak politika publikoen erdigunean
 - Hazkunde ekonomikoa eta ongizatea
 - Eraldaketa energetikoa eta jasangarritasuna
 - Bizikidetzak, memoria eta giza eskubideak
 - Autogobernua eta nazioarteko proiektzioa indartzea

Ardatz horiek Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen garapen-eredua laburbiltzen dute, oparotasun ekonomikoa, gizarte-kohesioa eta ingurumen-jasangarritasuna uztartuta.

Esparru horretan, gastu soziala inbertsio estrategikotzat jotzen da. Eusko Jaurlaritzak funtsezko zerbitzu publikoak indartzea lehenetsiko du, batik bat osasunean, hezkuntzan, etxebizitzan, segurtasunean edo gizarte-zerbitzuetan, eta horien kalitatea, irisgarritasuna eta finantza-jasangarritasuna bermatuko du. Era berean, kalitateko enpleguaren, berrikuntzaren, digitalizazioaren eta nazioartekotzearen aldeko apustua indartzea planteatzen da, produkzio-sarearen lehiakortasuna bultzatzeko eta hazkunde ekonomiko inklusiboa sortzeko.

Klima-aldaketako eta energia-aldakortasuneko testuinguru honetan, jarraibideek trantsizio energetikoa jotzen dute aurrekontu-politikaren lehentasun nagusitzat. Eusko Jaurlaritzak ekoizpen-ereduaren modernizaziora, energia berriztagarrien garapenera, energia-efizientziara, ekonomia zirkularra eta mugikortasun jasangarrira bideratuko ditu baliabideak. Helburua da enplegua sortzearekin eta enpresen lehiakortasunarekin bateragarria den eta Europako helburuekin bat datorren eredu ekonomiko erresilienteago eta jasangarriagorako bidean aurrera egitea.

Era berean, gizarte bidezkoago, kohesionatuago eta berdinzaleagoarekin hartutako konpromisoa nabarmentzen da. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikek, diskriminazioaren aurkako borrokak, memoriak eta giza eskubideen defentsak zeharkako izaera izango dute aurrekontuaren diseinuan.

Eusko Jaurlaritzak nabarmendu du balio horiek direla Euskal Autonomia Erkidegoko eredu demokratikoaren funtsezko zutabeak eta, hartara, politika publiko guztietan islatu behar direla.

Zorroztasun fiskala eta Europako esparru berria

Aurrekontu-egonkortasunarekin eta finantza-jasangarritasunarekin hartutako konpromisoak markatuko du 2027ko aurrekontua, Europar Batasunaren gobernantza ekonomikoaren esparru berrira egokitzeko testuinguruan. Esparru horrek diziplina fiskalaren helburuei eusten die, baina malgutasun handiagoa eskaintzen du finantza publikoen jasangarritasuna bateragarria izan dadin inbertsioarekin eta hazkundearekin.

Ildo horretan, 2026-2028 aldirako, gehieneko defizit-helburua urteko barne-produktu gordinaren % 0,3koa izango dela ezarri da, eta zor-muga barne-produktu gordinaren % 13koa; horri esker, bide fiskal zuhurrari eutsi ahal izango zaio, inbertsio-ahalmenari uko egin gabe.

Eusko Jaurlaritzak zorroztasun fiskalaren eta inbertsio estrategikoak bultzatzearen arteko orekaren alde egin du, epe ertain eta luzerako kontu publikoen jasangarritasuna bermatuta.

Aurrekontua lantzeko jarraibide teknikoak

Onartutako dokumentuak, halaber, aurrekontuak lantzeko orientabide tekniko batzuk barne hartzen ditu:

- Diru-sarreraren zenbatespena diru-bilketaren aurreikuspenetan eta foru-aldundien ekarpenetan oinarrituko da.
- Langile-gastuak aurrekontu-araudiak baldintzatuko ditu, eta ez da lanpostu kopuru osoa handituko.
- Baliabidea diruzaintzako gerakinera eta kreditu gehigarriak sartzera mugatuko da.

- Lehendik hartutako konpromisoen estaldurari eta uneko inbertsioak egikaritzeari emango zaio lehentasuna.
- Ez da sektore publikoko entitate berriak sortzea aintzat hartzen.

Neurri horien bidez, aurrekontu-diziplina indartu nahi da, gastu publikoaren efizientzia hobetu nahi da eta finantza-helburuak betetzen direla ziurtatu.

Eusko Jaurlaritzak aditzera eman du 2027ko aurrekontuak bi dimentsio osagarri uztartu behar dituela: herritarren berehalako premiei erantzutea eta Euskadiren etorkizuna markatuko duten egiturazko eraldaketa handietan aurrera egitea. Hartara, kontu publikoak hazkunde-eredu jasangarri, inklusibo eta lehiakorra finkatzeko benetako bide-orria izango dira, eta, hazkunde-eredu horri esker, Euskadi ongizatean, berrikuntzan eta bizi-kalitatean Europako eskualde aurreratuenen artean kokatu ahal izango da.

Aurrekontu-egutegia

Gobernu Kontseiluaren onarpenarekin, abian da jada aurrekontua onartzeko prozesua. Irailean izango da lehen zirriborroa, eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan adosten diren ekarpenak finkatzearekin osatuko da —urrirako aurreikusten da—.Aurreproiektua Gobernu Kontseiluaren urriaren 27ko bileran onartuko da, eta urriaren 31 baino lehen igorriko zaio Eusko Legebiltzarrari, indarrean dagoen araudiak ezartzen duen moduan.

Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua

Aurrerapenak administrazioaren digitalizazioan eta Gobernu Irekian, Ardatz 2030 estrategiaren baitan

- **Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa, Ardatz 2030, EAeko administrazioa modernizatzeko eta eraldatzeko ibilbide-orria da**
- **Planaren tarteko ebaluazioak aurrerapen garrantzitsuak egiaztatu ditu; dokumentuan jasotako 309 adierazleetatik ia erdiak beteta edo oso garatuta daude, eta Gobernu Planarekin lotutako adierazleen %60 osatuta edo oso aurreratuta daude**

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburu Maria Ubarretxenak Eusko Jaurlaritzaren Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa, Ardatz 2030 planaren, tarteko ebaluazioaren berri eman du gaurko Gobernu Kontseiluan.

Plan honek sektore publikoa modernizatzeko eta Administrazioa eraldatzeko ibilbide-orria finkatzen du, herritarrak ardatz dituen Administrazio irekiago, arinago, gardenago, parte-hartzaileago eta eraginkorrago baterantz aurrera egiteko; etorkizuneko administrazioak modu egokiagoan erantzun diezaien erronka sozial eta teknologiko berriei, kalitatezko zerbitzu eskuragarriago, seguruago, eraginkorragoen eskutik. Planak euskal administrazioaren eraldaketa hainbat eremu estrategiko eta ardatzen baitan oinarritzen du:

- **Gobernu zuzena, berdinzalea eta elebiduna:** kudeaketaren eta antolaketaren kultura, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta euskara, zerbitzu-eta lan-hizkuntza dira eremu honetako ardatzak.
- **II. Gobernu berritzailea eta etengabeko ikaskuntzan diharduena:** araudiaren, pertsonen, antolaketaren eta azpiegituren ardatzak biltzen ditu.
- **III. Herritarrak ardatz dituen gobernu digitala:** herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa ematea eta zerbitzu digitalak ardatzak daude eremu honetan.
- **IV. Datuetan oinarritutako Gobernua, kontuak ematen dituen:** datuen eta informazioaren gobernantzako, plangintzako, ebaluazio eta kontu-emateko eta maila anitzeko gobernantzako ardatzak biltzen ditu.
- **V. Gobernu Irekia:** eremu honen baitan daude ondorengo ardatzak: komunikazio publikoa, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea eta lankidetzak.

Bost eremu horien eta planean jasotako ardatzen bitartez ari da Eusko Jaurlaritza prozesuak sinplifikatzen; administrazioaren digitalizazioa bultzatzen; administrazioaren eta herritarren arteko harremana hobetzen; gardentasuna eta gobernantzaren kultura berria indartzen eta datuen eta teknologiaren aprobetxamendua bultzatzen, zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko.

Aurrerapen esanguratsuak

Planaren tarteko ebaluazioak, strategiaren hedapenean, aurrerapen nabarmenak izan direla egiaztatu du.

Ardatz 2030 planean jasotako 309 adierazleetatik 71 beteta daude dagoeneko, eta beste 56k garapen-maila oso altua dute; horrek esan nahi du aurreikusitako ekimenen ia erdiak dutela betetze-maila altua.

Gobernu Programari lotutako adierazleei dagokienez, adierazleen ia %60 osatuta edo oso aurreratuta daude. Zehazki, % 38 daude osatuta, % 21 oso aurreratuta eta % 31 nahiko aurreratuta.

Datu horiek agerian uzten dute Ardatz 2030 estrategiak, plana gauzatzeko epe erdia igarota, betetze maila altua duela eta ezarritako helburuak betetzen ari direla: administrazio modernoagoa, digitalagoa, hurbilagoa, berritzaileagoa eraikitzea, egungo zein etorkizuneko erronkei erantzuteko.

Etxebizitza eta Hiri Agenda

Eusko Jaurlaritzak Oiongo Udalaren partzela baten lagapena onartu du, alokairuko babes ofizialeko 23 etxebizitza eraikitzeko

- **Sustapena Udalarekin lankidetzan bultzatu da, 4,5 milioi euro inguruko inbertsioa izango du, eta obrak zuzenean lizitatu ahal izango dira 2027an, proiektua goiz izapidetzeko eredu bati esker**

Gobernu Kontseiluak baimena eman du astearte honetan Oiongo Udalak alokairu-erregimeneko babes ofizialeko 23 etxebizitza (BOE) eraikitzeko egin duen partzela baten doako lagapena onartzeko. Urrats horri esker, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak Arabako etxebizitza babestuen parke publikoa handitzen jarraitu ahal izango du, eta merkatu librean sartzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonentzako eta familientzako bizitegi-eskaintza eskuragarria sendotuko du. Udalak doan lagatuko partzela (Oiongo SAUR-1 eremuko RC-A partzela, alegia) alokairuko etxebizitza babestuak sustatzera bideratuko da oso-osorik. Eragiketa hori bi administrazio horiek udalerrian etxebizitza soziala sustatzeko 2025eko ekainaren 24an sinatu zuten lankidetzeta-hitzarmenaren barruan dago.

Proiektuak alokairuko 23 etxebizitza babestu eraikitzea aurreikusten du, eta 4,5 milioi euro inguruko inbertsioa mobilizatuko du, behin betiko aurrekontua gaur egun abian dagoen egikaritze-proiektua idazten amaitu ondoren zehaztuko bada ere. Jarduketa horren alderdirik garrantzitsuenetakoa bat Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean garatutako lankidetzeta instituzionalaren eredia da, aldi berean lurzorua lagapenean eta sustapenaren definizio teknikoan aurrera egitea ahalbidetu duena. Oiongo Udalak bere gain hartu ditu oinarriko proiektua egiteko enkargua eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren ikuskapen teknikoarekin garatzen ari den egikaritze-proiektuaren idazketa. Prozedura horri esker, segurtasun tekniko eta ekonomiko handiagoa lortuko da prozesuan, eta epe administratiboak murriztu egingo dira. Horrela, beraz, lagapena formalizatu eta inskribatu eta proiektua amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzak zuzenean lizitatu ahal izango ditu obrak 2027. urtearen amaieran.

Partzelak 900 metro koadrotik gorako azalera eta 1.800 metro koadro inguruko bizitegi-eraikuntzarako ahalmena du. Udalerriko SAUR-1 bizitegi-sektorean dago, eta beheko solairuko eta bi altuerako etxebizitza babestuen bloke bat eraikitzea bideratuko da. Lurzorua kargarik gabe entregatu da, eta Eusko Jaurlaritzak alokairu eskuragarriko parke publikoa handitzeko garatu duen estrategian txertatuko da. Jarduketa bat dator Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako finkatutako helburu batekin, hots, etxebizitza ekintza publikoaren ardatz estrategiko gisa lantzeko eta, ildo horretan, etxebizitza sozial eta babestuen sustapen berriak bultzatzeko eta alokairuko parke publikoa handitzeko helburuarekin, gazteak eta baliabide ekonomikorik txikienak dituzten pertsonak bereziki kontuan hartuta.

Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa

Seme-alabak dituzten familia guztientzako laguntzak handitzeko dekretua onartu du Eusko Jaurlaritzak: 200 euro hilean haur bakoitzeko, 4 urtera arte

- Neurriak aurtengo urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango du, eta laguntza berriak dekretua EHAAan argitaratzen denetik aurrera (ekainaren amaiera) eska daitezke
- 4 urtera arte luzatzearen ondorioz, 33,3 milioi euroko inbertsio gehigarria egingo da 2026an laguntzak ordaintzeko
- Harrera-familiak eta 4-7 urteko seme-alabaren bat duten guraso bakarreko familiak laguntzak jaso ahalko dituzte lehenengoz

Gaur Gobernu Kontseiluan onartutako dekretu berriaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak beste urrats bat eman du seme-alabak hazteak sortzen dituen aparteko zailtasunei aurre egiteko laguntzetan. Laguntza horien helburua familien eta haien kideen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko politika integral baten esparruan aurrera jarraitzea da. Halaber, seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabideak bermatzea eta haurren pobrezia saihesten saiatzea dute helburu.

Ekimen hau familiei laguntzera eta jaiotza-tasa sustatzera zuzenduta dago, eta honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak eskatu ahal izango dute:

- Euskadin bizi eta errolatuta egotea, haurraren bizileku berean, gutxienez urtebeteko antzinasunarekin, edo, bestela, txandaka, bost urteko antzinasunarekin, aurreko hamar urteen barruan.
- Diruz lagundu daitekeen egoeran adingabearen bizikidetzat eta zaintza bermatuta egotea.

Berrikuntzak

- 1.- Hileko 200 euroko laguntza 4 urtera arte luzatuko da. Gaur egun, laguntza semeak edo alabak 3 urte bete arte ematen da. Dekretu berriarekin, laguntza hori beste urtebete luzatuko da, eta, beraz, alabak edo semeak 4 urte bete arte jaso ahal izango da.
- 2.- Hilean 100 euroko laguntzak 4 eta 7 urte bitarteko seme-alabak dituzten familia ugariarentzat izango dira. Gaur egun, laguntza horiek dagoeneko badaude 3 urtetik 7 urtera bitarteko hirugarren edo hurrengo seme-alabentzat. Hemendik aurrera, laguntza 4 urtetik 7 urtera bitarte aitortuko da. Laguntza bera 4 eta 7 urte bitarteko seme-alabaren bat duten guraso bakarreko familietara ere iritsiko da.
- 3.- Era berean eta lehengoz hilean 100 eta 200 euroko laguntzen onuradun izango dira harrera-familiak (621 familia Euskadin) edo tutoretza-familiak.
- 4.- Kudeaketa eta elkarreragingarritasunak hobetzen dira. Errenta-mailaren arabera ematen diren laguntzetan, likidatutako azken zergaldia hartuko da kontuan.

Atzeraeraginkortasuna

Neurriak 2026ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango du, hau da, egun horren hasiera-datarekin aintzatetsiko dira. Atzeraeraginkortasun horrek beste modu batean eragingo die familiei. 200 euroko laguntzen adibideak:

- Nire alabak 3 urte bete zituen 2025eko abuztuaren 12an: familiak laguntza berria jasotzeko eskubidea du 2026ko urtarriletik uztailera arte.
- Nire semeak 3 urte bete zituen 2026ko urtarrilaren 12an: familiak laguntza berria jasotzeko eskubidea du 2026ko urtarriletik 2027ko abendura arte.
- Nire alabak 4 urte bete zituen 2026ko urtarrilaren 12an: ez du laguntza berria jasotzeko eskubiderik. 2026ko urtarrilean 4 urte bete duten seme-alaben familiei ez dagokie laguntza berria, laguntza haurrak 4 urte bete aurreko hilean amaitzen delako.
- Nire alabak 4 urte bete zituen 2026ko otsailaren 12an: familiak 2026ko urtarrileko laguntza berria jasotzeko eskubidea du.

Aurrekontua eta eskaera-data

Hurrengo 4 urteetarako laguntzak handitzeko inbertsio ekonomikoa 85,8 milioi eurokoa da, eta aurten 33,8 milioi euroko ordainketa-kreditua izango du.

Era berean, laguntza berriak dekretua EHAAan argitaratzen denetik aurrera (ekainaren amaiera) eskatu ahal izango dira.

Mugikortasun Jasangarria

Gobernu Kontseiluak garraio publikoan belaunaldi-erreleboa egiteko laguntza-programa onartu du

- **Mugikortasun Jasangarriaren Sailak 450.000 euro zuzenduko ditu bidaiarien edota salgaien errepide bidezko garraio publikoan diharduten profesionalen jarduera amaiera errazteko**

Gobernu Kontseiluak, Susana García Chueca Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak proposatuta, 450.000 euroko laguntza-programa bat onartu du gaur 2026erako, 2000. urtean garraiolarien belaunaldi-erreleboari emandako laguntzari jarraipena emateko. Deialdi hau salgaien edo bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorean aritzen direnei eta jarduera etorkizunean utzi nahi dutenei zuzenduta dago, nahiz eta erretiro-adin arruntera iritsi ez (63 edo 64 urte), edota, hala badagokio, aitortutako ezintasun iraunkorragatik edo baliaezintasun handiaren aitortenagatik jarduerarekin jarraitu ezin dutenei.

Eskabideak Mugikortasun Jasangarriaren Estrategiaren Zuzendaritzak kudeatuko ditu. Interesdunek hilabeteko epea izango dute, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik eskabidea aurkezteko, formulario ofizialarekin eta gutxieneko dokumentazioarekin batera: EAEn errolatuta egotearen ziurtagiria, azken hamar urteetan autonomo gisa etengabe alta emanda egotearen ziurtagiria eta, hala badagokio, ezintasunaren edo baliaezintasun handiaren ebazpena. Pertsona juridikoen bazkide bakarren kasuan, beharrezkoa izango da IFZ, Merkataritza Erregistroaren ziurtagiria eta izaera hori egiaztatzen duten eskriturak aurkeztea.

Neurri horrekin, Eusko Jaurlaritzak errepideko garraio publikoaren belaunaldi-berrikuntza sustatzeko duen konpromisoa berresten du, 2000. urtean abiarazitako programa indartuta. Programa honek urteak sektorean eman dituzten pertsonen baldintza ekonomiko hobeeetan erretiratzeko aukera eskaintzen die, salgaien eta bidaiarien garraio-zerbitzuaren jarraitutasuna eta modernizazioa bultzatzen den bitartean.

Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

Eusko Jaurlaritzak 132.000 euro bideratuko ditu itsas arrantza arloko prestakuntza eta sektorearen belaunaldi-erreleboa sustatzeko beketara

- Laguntzak Pasaiaiko, Bermeoko eta Ondarroako ikastetxeetako ikasleei zuzenduta daude, eta 2.404 eurora artekoak izan ahal izango dira pertsona bakoitzeko
- Deialdiaren helburua euskal itsas eta arrantza jardueraren etorkizunerako estrategikoak diren ikasketetarako sarbidea eta jarraipena erraztea da

Gobernu Kontseiluak 2025-2026 ikasturtean **itsas arrantza arloko ikasketak** egiteko beken deialdia onartu du. Bekak Pasaiaiko CIFP Blas de Lezo LHII ikastetxean, Bermeoko CIFP Nautika eta Arrantzakoan eta Ondarroako Antigua Ama Arrantzako Lanbide Heziketako Ikastetxean ikasten duten ikasleei zuzenduta daude.

Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Sailak sustatutako deialdiak **132.076 euroko** zuzkidura ekonomikoa du guztira, eta helburua euskal itsas eta arrantza sektorearen etorkizunerako estrategikotzat jotzen den prestakuntza batean ikasleen sarbidea, jarraipena eta egonaldia erraztea da.

Laguntzek gehienez **2.404,05 euroko** zenbatekoa izango dute **onuradun bakoitzeko**, eta ikasketekin lotutako gastuen estaldurara bideratuko dira; besteak beste, ohiko bizilekutik kanpoko egoitza, ikastetxerako joan-etorriak, mantenua eta materialaren erosketak.

Bekak Euskadiko itsas arrantza irakaskuntzako ikastetxeren batean matrikulatuta dauden eta aginduan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak eskatu ahal izango dituzte.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak **aurrez aurre nahiz modu elektronikoa**n aurkeztu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez.

Deialdi honen bidez, Eusko Jaurlaritzak itsasoari eta arrantzari lotutako prestakuntza espezializatuaren aldeko babesa indartzen du, eta euskal kostaldean sustrai ekonomiko, sozial eta kultural handia duen jarduera baten gaitasun profesionala, **belaunaldi-erreleboa** eta jarraitutasuna bermatzen laguntzen du.

Justizia eta Giza Eskubideak

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak 'René Cassin' sariko dekretua aldatu du eta bere proiektzioa zabaltzen lagunduko du

- **2003an sortua, sariak giza eskubideen sustapenean, defentsan eta hedapenean egindako jarduera nabarmenak publikoki aitortzea du helburu**

Gobernu Kontseiluak, Justizia eta Giza Eskubideen sailburu María Jesús San Joséren proposamenez, gaur onartu du "René Cassin" Giza Eskubideen Saria arautuko duen dekretu berria. Araudiak sariaren esparru berri bat ezarriko du, eta horrek aukera emango du giza eskubideen defentsan diharduten pertsona edo kolektibo gehiagori aitortza zabaltzeko.

Dekretu berriak, 2013ko aurrekoa ordezkatzeko duena, sariaren ematea hobetzea du helburu. Berrikuntza nagusien artean daude, besteak beste, prozesuaren parte-hartzea eta gardentasuna sustatzea, alderdi arauemaile nahiz operatiboen bitartez.

Bestalde, testua Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen 20/2023 Legeari egokitu da; lege hori zorrotzagoa da eta baldintza gehigarriak ezartzen ditu; adibidez, hautagaien erantzukizunpeko adierazpena edo ebazpen-prozesuaren aldaketa, tramiteak bizkortzeko.

Era berean, dekretu berriak edizio bakoitzeko deialdiaren ebazpenean bi sari emateko hautagaitzak aurkezteko aukera aurreikusten du: bat pertsona fisiko bati, eta bestea, juridiko bati. Giza eskubideen arloan ospe handia duten pertsonak osatutako epaimahaiak, gainera, sarituak izan ez diren azken hiru urteetako hautagaiak aukeratu ahal izango ditu aukera gehiago izateko.

Sariaren nazioarteko proiektzioa errazteko, testuak aukera ematen du atzerriko hautagaiak edo bizilekua atzerrian dutenak aurkezteko, betiere Euskadiko edo Estatuko erakunde batek aurkezten baditu. Horrela, etorkizuneko edizioetan giza eskubideen aldeko ekimen globalak sartzea erraztuko da.

Beste berrikuntza esanguratsu bat da saria lortu eta hurrengo bi edizioetan saritutako pertsonak edo erakundeak sariaren zabalkundean hartzen duten konpromisoa. Eskakizun horren helburua da aitortza publikoa zabaltzea, bai eta gizartea giza eskubideen arloan kontzientziatzea ere.

Saria 2003an hasi zen ematen, eta ohorezko saria, aitortza publikoa eta dirulaguntza bat izaten jarraituko du. Gainera, balorazio-irizpideen artean, emakumeen eskubideen defentsan izandako ibilbidea egoten jarraituko da, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, kolektibo gutxituak eta ikuspegi intersektionala, batez ere generokoa, sartuko dira. Azken horiek, Dirulaguntzen Araubideri buruzko Legeak ezarritako irizpideak dira.

Sari honek René Cassini zor dio izena, 1887ko urriaren 5ean Baionan jaio eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren inspiratzaile nagusitzat hartzen dena. Cassinek Bakearen Nobel Saria jaso zuen 1968an, giza eskubideen alde egin zuen lan nekaezinagatik. Sari hau jaso duten pertsona eta erakundeen artean daude, besteak beste, Francesca Albanese, Nazio Batuen Palestinako Lurralde Okupatuetarako errelatore berezia; UNRWA; “Asociación Civil Abuelas Plaza de Mayo” elkarteak; Federico Mayor Zaragoza; Alec Reid; Koro Erdozia Lasa; Elisa Loncon Antileo; Dora María Téllez, eta ICDP Heriotza Zigorren aurkako Nazioarteko Batzordea.

Saria abenduan ematen da, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunarekin bat eginez.

Justizia eta Giza Eskubideak

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak eta EHU-k hitzarmen bat sinatu dute espetxe-administrazioan eta Ibaiondoko Hezkuntza Zentroan praktikak egiteko

- **Hitzarmenak Gradu eta Masterretako ikasleek espetxe eta gazte justiziaren arloko prestakuntza jaso eta gaitasunak eskuratzea erraztuko du**

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) lankidetzak hitzarmen berri bat sinatu berri dute, ikasleek espetxe-administrazioan eta Ibaiondoko Gazte Justiziaren Hezkuntza Zentroan praktikak egin eta Gradu eta Master Amaierako lanak garatu ahal izan ditzaten.

Gobernu Kontseiluak, María Jesús San José Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren proposamenez, gaur onartu du lankidetzak-esparru hitzarmen hori. Helburua da etorkizuneko profesionalek espetxe eta gazte justiziaren arloko prestakuntza jaso eta gaitasunak eskuratzea.

Praktikak ez dira ordainduak izango, eta, hala nola Zuzenbidea, Psikologia, Gizarte Hezkuntza, Gizarte Langintza, Kriminologia edo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak bezalako diziplinetako ikasleei zuzenduta egongo dira.

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak praktiketan hartu ahal izango ditu alde aurretik Sailak berak onartutako eta EHU-ren proposamenarekin aurkeztutako ikasleak.

Unibertsitateak, bere aldetik, bere gain hartuko ditu praktikaldien deialdiaren alderdi formalen kudeaketa, baita horien araudia eta barne-prozedurak ere.

Justizia eta Giza Eskubideak

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak 2,4 milioi euro bideratuko ditu abokatuen elkargoetara, doako laguntza juridikoa emateko

- **Arreta emakumearen aurkako, familia barruko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei zuzenduta dago, baita indarkeriaren biktimak diren haurrei, nerabeei eta desgaitasunen bat duten pertsonei ere**

Justizia eta Giza Eskubideen Sailak 2,4 milioi euro bideratuko ditu aurten emakumearen aurkako, familia barruko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei eta indarkeriaren biktimak diren haurrei, nerabeei eta desgaitasunen bat duten pertsonei doako eta berehalako laguntza juridikoa emateko zerbitzu publikora.

Gobernu Kontseiluak, Justizia eta Giza Eskubideen sailburu Maria Jesus San Joseren proposamenez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako abokatuen elkargoei 2,4 milioiko dirulaguntza ematea onartu du gaur, funtsezko zerbitzu hori emateko. Doako Laguntza Juridikoaren Legeak abokatuen elkargoei esleitzen die doako abokatu-laguntzako zerbitzuen erregulazioa eta antolaketa, eta, horretarako, guardiako txanda iraunkor bat izan behar dute zerbitzu hori emateko. Prozesu horietan, halakotzat aitortutako biktimek (eta, bereziki, genero-indarkeriaren biktimek) abokatu beraren laguntza jaso beharko dute defentsarako duten eskubidea behar bezala bermatzeko.

Erabaki horren bidez, 467.391 euroko dirulaguntza emango zaio Arabako Abokatuen Elkargoari, 1,1 milioi eurokoa Bizkaiko elkargoari eta 760.424 eurokoa Gipuzkoari. Indarkeriaren biktimei berehalako arreta juridikoa emateko Eusko Jaurlaritzaren eta Legelarien Euskal Kontseiluaren arteko lankidetzak 2003. urtean hasi zen, eta aldaketak izan ditu gertatu diren lege-aldaketen arabera.

Cultura y Política Lingüística

El Gobierno Vasco subvencionará con 200.000 euros los trabajos de investigación sobre la protección del Patrimonio Cultural Vasco

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de subvenciones para la realización durante los años 2026 y 2027 de trabajos de investigación sobre los elementos que integran el patrimonio cultural vasco, a excepción de sus manifestaciones inmateriales. Así, el **Gobierno Vasco destinará 200.000 euros a esta convocatoria**. Los proyectos se podrán **subvencionar hasta el 100%** siempre, con un máximo de 15.000 euros.

Los trabajos, que podrán centrarse en bienes tanto inmuebles como muebles del patrimonio material, deberán generar nuevo conocimiento sobre las características o la relevancia de los bienes estudiados desde el punto de vista del patrimonio cultural de la CAPV, de manera que ayuden a su valoración crítica y a la mejora de su protección.

Además, estas subvenciones tratan de favorecer, a través de los criterios de valoración de las solicitudes, el uso del euskera y la incorporación de la perspectiva de género en los proyectos de investigación del patrimonio cultural, así como la participación de las mujeres como responsables de proyectos.

Los proyectos objeto de subvención deberán haberse iniciado o iniciarse dentro del ejercicio 2026 y estar finalizados antes del 31 de octubre de 2027.

El plazo para presentar las solicitudes para la convocatoria de 2026-2027 será de **un mes** a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, que está prevista para mediados del mes de junio.

En la convocatoria de 2025 se subvencionaron un total de 13 proyectos de investigación que cubren un amplio abanico cronológico que va desde la prehistoria hasta el siglo XX, y tocan temas muy variados del patrimonio cultural vasco, mueble e inmueble.

Economía, Trabajo y Empleo

Economía, Trabajo y Empleo aprueba el Programa Estadístico Anual para reforzar la producción de datos oficiales de Euskadi

- **El decreto de este año regulará más de un centenar de operaciones estadísticas e incorporará nuevas exigencias europeas sobre datos de alto valor**

El Consejo de Gobierno, a propuesta del Vicelehendakari y consejero de Economía, Trabajo y Empleo, Mikel Torres, ha aprobado este martes el Programa Estadístico Anual, el instrumento que define y ordena todas las operaciones estadísticas oficiales que se llevarán a cabo en la Comunidad Autónoma de Euskadi durante el 2026.

